getxoBerri

Getxo bizi ezazu

@GetxoUdala #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1888 zk.
www.getxo.eus

Azaroak 12 >> Azaroak 22 | 2026

/ Nabarmentzekoak

> Getxok Memoriaren Eguna ospatu du (2. or.)

> Lucia Lacarraren konpainia "A.I (Amalur Indarra)" lanarekin dator (3. or.)

> Itsasontziz egindako zeharkaldiak Sestaoko Labe Garairako eta Punta Begoña Galerietarako bisitak lotzen ditu (4. or.)



A- GENDA

Kontzertua. Iparra Galdu Gabe. Hilak 21, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Niko Etxarti omenaldia", Niko Etxart eta Hapa-Hapa Taldearekin. 10 euro.

Haur ikuskizuna. Hilak 22, igandea, 18:00etan, Muxikebarrin, "Fly me to the moon", Leandre Clowneko pailazoekin. 10 euro.

Udalak 500.000 euro inguru bideratuko ditu tokiko enplegura eta enpresetako kontrataziora

Udalak 498.426 euroko dirulaguntza jasoko du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emana, 2026ko ekitaldiko tokiko enplegurako laguntzetarako deialdiaren esparruan. Finantzaketa hori bi jarduera-ildo nagusitan egituratuko da: alde batetik, 337.500 euro enplegurako erabiliko dira, udalerriko 27 langabe zuzenean kontratatuz; bestetik, 160.926 euro esleituko dira tokiko enpresentzako kontrataziorako laguntzetarako.



Udal kontratazioak

Lehen ildoa langabeen enplegagarritasunera bideratuta dago, haien kualifikazioa, gaitasun pertsonalak eta motibazioa hobetuko dituen aldi baterako lan-esperientziaren bidez.

Guztira, Getxon erroldatutako 27 pertsona kontratatuko dira 20 udal-ekimenetan parte hartzeko. Kontratu guztiek 6 hilabeteko iraupena izango dute lanaldiaren %50ean, langileen lanpostuak izan ezik (lanaldi osoa). Eskaintzen kudeaketa azaroaren 17an hasiko da. Lanpostu horiek eskuratu ahal izateko, **ezinbesteko baldintza izango da langabezian egotea, Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea,** lanpostu bakoitzerako eskatzen den gutxieneko titulazioa edo prestakuntza izatea eta Getxoko udalerrian erroldatuta egotea.

Enpresentzako laguntzak kontrataziorako

Modu osagarrian, Udalak laguntza ekonomikoen beste deialdi bat argitaratuko du tokiko enpresa-sarean langileak kontratatzeko; esleitutako aurrekontua, guztira, 160.926 eurokoa izango da.

Dirulaguntza horiek Lanbiden izena emanda dauden eta Getxon erroldatuta dauden langabeak kontratatu dituzten tokiko enpresentzat dira. Diruz laguntzeko moduko kontratuak 2025eko irailaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitartean hasi beharko dira.

Informazio gehiago: https://labur.eus/8mvznl9a

PROIEKTUAK	KATEGORIA	TITULAZIOA/ GUTXIENEKO PRESTAKUNTZA	LANBIDEA	Kontratatu beharreko pertsonen kopurua
Administraria, Udaleko hainbat arlotan administrazio-lanak egiteko	Administraria (C1)	Batxilergoa edo baliokidea + B2 euskara-maila	Administrari orokorra (43091029)	13
Administraria, Udaleko hainbat arlotan administrazio-lanak egiteko	Administraria (C1)	Batxilergoa edo baliokidea	Administrari orokorra (43091029)	8
Enpresetarako dirulaguntzak kudeatzeko laguntza	Erdi-mailako teknikaria (A2)	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Enpresa Zientzietan, Zuzenbidean, Ekonomian edo Lan Harremanetan diploma edo gradua edo baliokideak + B2 euskara-maila	Enpresa-aholkularia (26221027), Zerbitzu juridikoetako eta antzekoetako teknikaria (37111027) eta administrazio publikoko erdi-mailako teknikaria (26231066)	1
Sistemen dokumentu-artxiboaren antolaketa eta kategorizazioa	Informatikako teknikari laguntzailea (C1)	Telekomunikazio- eta informatika-sistemetako goi-mailako teknikaria edo sareko informatika-sistemen administrazioan goi-mailako teknikaria + B gidabaimena	Telekomunikazio-teknikariak (38331033), telekomunikazio-ekipoen eta -sistemen instalatzaileak (75331067) eta sare-sistemen administrariak (27211018)	1
Bide publikoa margotzea, segurtasuna hobetzeko	Lanbide-talde sailkapeneko langilea	Eskola-ziurtagiria edo baliokidea + Gutxienez 3 hilabeteko esperientzia lanpostuan	Pintorea edo papereztatzailea (72311035)	2
Instalazioak prestatzea eta mantentze-lanak egitea	Lanbide-talde sailkapeneko langilea	Eskola-ziurtagiria edo baliokidea + Gutxienez 3 hilabeteko esperientzia lanpostuan	Eraikinen mantentzailea (71911012)	2

- **Kontratuek 6 hilabete iraungo dute** eta lanaldi erdikoak izango dira, Lanbide-talde sailkapeneko langileak izan ezik, lanaldi osokoak izango baitira.
- Kontratazio horietarako hautagaien hautaketa Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako eskaintzaren bidez egingo da. **Azaroaren 17an**, eskaintzak **parekatze eta hedapen bidez** kudeatzen hasiko dira; hori dela-eta, ezinbestekoa izango da egun horretan interesdunak langabezian egotea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Gainera, ezinbestekoa izango da:
  - Lanposturako beharrezkoa den gutxieneko titulazioa edo prestakuntza egiaztatzen duen dokumentua izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko CVan adierazita egotea.
  - Getxon erroldatuta egotea.
- Adierazitako lanbideetarako hautagairik ez badago, bilaketa zabalduko da. Lanbide berriak webgune honetan argitaratuko dira: www.getxo.eus.
- Getxoko Udalak ezingo du azken deialdian (2025ean) kontratatutako inor kontratatu.
- Kontratuak 2026ko abenduaren 31 baino lehen hasiko dira. Nolanahi ere, kontratuak 2027ko ekainaren 30a baino lehen amaituko dira.

A-GENDA

AZAROAK 12 OSTEGUNA

Literatura topaketa. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Dormir fuera de casa" (gazteleraz), Paula Hoyos egilearekin. Sarrera dohainik.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Rodrigo Sorogoyeten "El ser querido" (gazteleraz). 12 urtetik gorakoentzat. 3,50 euro.

AZAROAK 13 OSTIRALA

Auzoka. 17:00etatik 20:00etara, Bizkaia Zubia plazan, "Zentzu bidaia", eta Malakate parkean, musika. 6-11 urtekoentzat, euskeraz. Doan.

Kontalarien Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Cómo nos reímos" (gazteleraz). Sarrera dohainik.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, Javier Figueroaren "El ventrílocuo" (gazteleraz). 12 euro.

AZAROAK 14 LARUNBATA

Ipar martxa. Irteera 10:00etan Algortako batzokitik, Getxotik ibiltzeko. Izena aldez aurretik eman behar da (hilak 13 baino lehenago) nw.itxartu@gmail.com-en Antolatzailea: Itxartu Mendi Taldea.

Ipuin kontaketa. Storytime. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Wesley Wimp" (ingelesez). 3-7 urte. Izen-ematea dohainik: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "A.I. (Amalur Indarra)", Lucía Lacarraren Balletarekin. 20 euro.

AZAROAK 15 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Evolution" (euskaraz). 7 urtetik gorakoentzat. 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin, "Bidutzi" (euskaraz), Benetan Be taldearekin. 3 urtetik gorakoentzat. 8 euro.

AZAROAK 17 ASTEARTEA

Hitzaldia. 18:00etan, Algortako Erretiratuen Elkartearen egoitzan (Juan Bautista Zabala kalea, 6, behea), "Istripuen prebentzioa" (gaztelaniaz). Hizlaria: Javier Larrea. Antolatzailea: AJANE.

AZAROAK 18 ASTEAKENA

Irakurketa antzeztuen tailerra. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Recordando a Lorca. Yerma." (gazteleraz), Utopiaren eskutik. Izena doan emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez

AZAROAK 19 OSTEGUNA

Ipuniaren orduan. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Kutxa txiki magikoak" (euskaraz), Bego Alabazanekin. 3-6 urte. Izena doan emateko: www.getxo.eus/apuntazaitez

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Milagros Mumenthalerren "Las corrientes" (gazteleraz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 20 OSTIRALA

Auzoka. Haurrentzako eta familientzako jolasak eta kaleko jarduera parte-hartzaileak. 17:00etatik 20:00etara, musika Santa Eugenia plazan eta "Zentzu bidaia" Aldapa parkean.

Santa Cecilia kontzertua. 18:00etan, Muxikebarrin, Musikaliaren emanaldia. Sarrera doan.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Promesarik txikiena" (euskaraz), Infinitu dramarekin. 15 euro.

Zine-Kluba. 20:30ean, Romo Kultur Etxean, Isabel Coixeten "Tres adioses" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

AZAROAK 21 LARUNBATA

Kontzertu gidatua. 17:00etan eta 19:00etan, San Nikolas Ikastolan, Andres Isasiren Musikalia bandarekin. Gonbidapenak eskatzeko: www.musikaliaelkartea.eus.

Antzerkia. 19:00etan, Muxikebarrin, "La importancia de llamarse Ernesto" (gazteleraz), Compañía Joven Sin Remilgosekin. Sarrerak agortuta.

Kontzertua. Iparra Galdu Gabe. 20:00etan, Muxikebarrin, "Niko Etxarti omenaldia", Niko Etxart eta Hapa-Hapa Taldearekin. 10 euro.

Hitzaldia. 11:00etan, Algortako Erretiratuen Elkartearen egoitzan (Juan Bautista Zabala kalea, 6, behea), "Erromanikoa Erdi Aroan" (gaztelaniaz). Hizlaria: Sylvia Cárcamo. Antolatzailea: AJANE.

AZAROAK 22 IGANDEA

Zinematxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Super Charlie" (gazteleraz). Adin guztiak. Sarrera: 2,50 euro.

Haur ikuskizuna. Pailazoak. 18:00etan, Muxikebarrin, "Fly me to the moon", Leandre Clownekin. 10 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Invita la casa" (gazteleraz), Sin Red Teatroarekin. 4,50 euro.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF >

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL.
Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.
Banaketa: Joal Express, S.L.
Gordailu legala: BI-388-87



Getxok Memoriaren Eguna ospatu du

Memoriaren Eguna dela eta, Amaia Aguirre alkateak eta EAJ-PNV, PSE-EE, EH-Bildu eta Elkarrekin Podemoseko udal ordezkariek elkarretaratze isilean hartu zuten parte Udaletxe aurreko zabalgunean pasa den asteartean, hilak 10. Memoriaren Egunaren oroitzapenak, terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriare biktimak oroitu eta omen-tzeko, iraganaren hausnarketa kritikoa egitea du helburu.

Gaueko harrapariei buruzko tailerra

Romo Kultur Etxean "Getxoko gaueko harrapariei eta beren egagrobilen analisiari buruzko ikastaro-tailerra" egingo da hilaren 21ean. Jarduerak bi hitzaldi eta tailer praktiko bat izango ditu, eta gure Biodibertsitatea ezagutzera eta kontserbatzera bideratuta dago. Jarduera horren protagonista dira hegazti horiek eta elikatzen dituzten mikrougaztunak.

Tailer-ikastaroaren ordutegia 10:00etatik 13:30era izango da. Parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar da boluenatura@gmail.com helbidean.

Udazken-negu sasoiko lore aldaketa

Aste hoentan hasi dira udazken-negu sasoiko lorea berritzeko lanak. Guztira 1.024 m²-ko azalera hartuko dute lanek, udalerriko hainbat tokitako berdegune, jardinera, biribilgune eta irlatxoen artean banatutakoa. Lanen barruan, 2.584 lore-tepe landatuko dira, 860 m²-ko azaleran. Urte sasoi honetako hainbat espezie erabiliko dira: krabelina, ziklamena, dragoi-mutur eta bitxiloreak, besteak beste.

Landaketa berrien kontserbazioa errazteko, herritarren laguntza eskatzen da, eta gogorarazten da garrantzitsua dela lorategiak errespetatzea, landatutako aleak ez kentzea edo manipulatzea eta lagun egiteko animaliak espazio horietara sartzea saihestea.

Landare ematea

Landaketen berritzea dela eta, udaberri-udako espezieak kenduko dira. Alegrien kasuan, aurrekoetan bezala, aleak banatuko dira herritarren artean, berrerabiltzea errazteko eta konpostatzera bidera ez daitezen.

Loreak emateko hurrengo egun eta tokiak honako hauek dira:

- **Azaroak 16 eta 17:** Darío de Regoyos parkea, eta Basagoiti pasealekua (Algortako etorbidearen ondoan)
- **Azaroak 18:** Areetako Geltokiko plaza
- **Azaroak 23:** Bidezabal

2027ko "Getxo Hurbil" Merkataritza Sarietarako hautagaitzen aurkeztea

Abenduaren 4ra arte, herritarrek, merkataritza elkarteek eta beste erakunde batzuek "Getxo Hurbil 2027" Merkataritza Sarietarako hautagaitza proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte. Udalak sustatuta, Ekonomia Sustapen arloaren bidez, udalerriko merkataritza elkarteekin batera egiten dira.

Guztira, 6 kategoriatan aurkeztu ahal izango dira hautagai-proposamenak: Tradizioa eta ibilbidea; Komertzio sortu berria – Ekintzailetza; 360º iraunkortasuna; Berrikuntza. Negozio-ereduaren eraldaketa; Ekin merkatari saria; Getxoko Arima

Informazio gehiago: https://labur.eus/joicxjud Hautagaitzak aurkeztea: https://labur.eus/bj7f6mxu



Topaketa eta omenaldia mendeko pertsonen senide zaintzaileentzat

Zaintzaileen Nazioarteko Eguna ostegunean, azaroak 5, ospatu zela eta, mendeko pertsonen 40 bat senide zaintzailek omenaldi bat jaso zuten ostiralean, hilak 6, Romo Kultur Etxean ospatutako urteroko Topaketaren zortzigarren edizioan. Aurreko urteotan bezala, zaintzaren bizipenei buruzkoak partekatu eta gai berberari buruzko ipuin bat entzun ondoren, bertaratu diren zaintzaileek landare bat jaso zuten opari gisa eta mokadu txiki bat ere dastatu ahal izan zuten.

LABURRAK

*** Argiak hainbat kausengatik.** Areetako kaia eta igogailu publikoak berdez argiztatuko dira datorren azaroaren 17an eta 18an, EPOC Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoaren Munduko Eguna ospatzen dela eta. Bestalde, hilabetearen 24tik 30era, morez argiztatuko dira aipatutako tokiak, hilaren 25ean Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna ospatzen delako.



Udalerriko 14 artista, eragile eta kultur taldek jaso dute “Aixe Getxo!” saria

Udalak bultzatutako *AixeGetxo!* sarien hamabosgarren edizioan, herriko 14 artista, eragile eta kultur taldek jaso dute beren lanaren aitorpena. Asteartean, azaroak 10, Muxikebarrin ospatu zen gala hunkigarri batean, udal agintariek sariak banatu zituzten kategoria desberdinetan. Arte Bisualetan eta Ikus-entzunezkoetan, Teresa Laviña, dokumentalen zuzendaria; Arte Plastikoetan, Olatz Otalora Landa artista bisuala; Arte Eszenikoetan, Iñigo Iraultza *Iru*, La Pez konpainiaren sortzaile, aktore eta zuzendaria; Egungo musikan, The Piper’s Irish Pub, 25 urte betetzen dituen lokala, Algortako musika zuzeneko gune eta eszena musikalaren topagune gisa; Musika klasiko eta garaikidean, Andoni Martínez Barañano tenorea; Literaturan, Federico Bilbao Solozabal poeta; Diseinuan, Charo Álvarez moda diseinatzaile eta artisaua; Arkitekturan eta espazio publikoan, SOiL Arquitectura del Paisaje estudioa; Gastronomian, Iwasaki jatetxe japoniarra; Kultura Hezkuntzan eta Balioetan, Zirri Marra Arte Tailerra; Kultura Zientifiko eta Berritzailean, Maia García Verginiony nazioarteko ikertzailea; Ondare kultural material eta immaterialaren saria, Itxartu Taldea; AixeGetxo Gaztea saria Veronica Uribe-Echevarria biologo molekular eta biomediku gaztearentzat izan da; eta Ibilbide Profesional eta Artistikoaren saria Galdaretxe gozotegiarentzat, 1970ean Algortan sortutako negozio familiarra, 55 urtetik gorako jardueraren ondoren, artisau-gozogintzaren eta tokiko tradizio gastronomikoaren aldeko apustuari eusten diona.

IPARRA GALDU GABE 25

Ikasleen bideo-omenaldia Niko Etxartentzat

Getxoko ikaslek Niko Etxartek *Iparra Galdu Gabe* Jardunaldietan eskainiko duen kontzertu-omenaldia dela eta prestatutako bideoa jadanik ikus daiteke udal web gunean (www.getxo.eus/euskara). Kantariak Getxon abestuko du, aipatutako Jardunaldien lehen edizioan parte hartu ondoren.

Udalerriko 11 ikastetxetako euskal kanta- eta bertsolaritza-klasetako 450 bat ikaslek egin dute *Eperra* eta *Euskal Herri rock&roll* abestien bideo grabazioa. Bideoa datorren azaroaren 21ean Muxikebarrin izango den aipatutako kontzertu-omenaldian ere proiektatuko dute.



“El Ventrílocuo”, umorea, musika eta ilusioa

Ostiralean, hilak 13, Territorio Violeta konpainiak, 20:00etatik aurrera, *El ventrílocuo* gaztelaniazko ikuskizuna antzeztuko du Muxikebarrin, publiko guztiarentzat, irudimenez betea, arte hau berrasmatzen duena, harritzeko eta barre eragiteko. Jaime Figueroa polifazetikoak zuzendu eta interpretatzen du obra. Eszenatokian bakarrik dagoela ematen du, baina pertsonaia eta objektu mordo zentzugabeari bizitza ematea lortzen du: paper zati batetik hasi eta gospela abesten duen sai arrearenganaino, umorea, magia, zuzeneko musika eta ilusioa uztartuz. Sarrera: 12 euro.



Lucia Lacarraren konpainia “A.I. (Amalur Indarra)” lanarekin dator

A.I. (Amalur Indarra), Lucía Lacarra Ballet konpainiaren bigarren ekoizpen handia, azaroaren 14an, larunbata, iritsiko da Muxikebarrira. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sarrerak 20 euro balio du.

Lucia Lacarra euskal dantzari ospetsuak eta Matthew Goldingek gidatuta, muntaiak Adimen Artifiziala nagusi den etorkizun distopiko bati buruz hitz egiten du, non Amalur (Ama Lurra) Lurretik eta bere emozioetatik deskonektatutako gizateria bat esnatzeko sortu zen. Ikuskizun honek dantza, laser argiak eta teknologia berriak uztartzen ditu, gizakiaren eta artifizialtasunaren arteko harremana aztertzen duen proposamen bisual batean; eta teknologiak gure bizitzetan duen identitateari, kontzientziari eta rolari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Lanak teknologiaren eta organikoaren, klima-aldaketaren, identitatearen eta emozioen rolaren eta automatizazioaren arteko talkari buruz arrazoitzen du.

Kritika espezializatuek bat egin dute A.I. kalifikatzean. (Amalur Indarra) ikuskizun zirraragarria, ausarta eta karga kontzeptual handikoa. Ballet klasikoaren narratiba tradizionaletik aldentzean, harrera giroa, mezu etikoa eta taulen gaineko kontraste estilistikoa aztertzera bideratu da.



“Bidutzi” familia ikuskizuna euskaraz

Benetan Be konpainiak *Bidutzi* euskarazko ikuskizuna aurkeztuko du igandean, hilak 15, arratsaldeko 18:00etan, Muxikebarrin. Argumentuak inauteri-gauera garamatza. Bidutzi, munstro txiki bat, kaiola batean harrapatuta geratu da debeku misteriotsu bati aurre egin ondoren. Ainararen laguntzarekin, ihes egiteko modua aurkitu beharko du ehiztaria itzuli aurretik. Familiako abentura dibertigarria izango da, mozorroen, umorearen eta emozioaren artean, beldurra barre bihurtzen duena eta adiskidetasunaren balioa ospatzen duena. Sarrera: 8 euro.



Itsasontziz egindako zeharkaldiak Sestaoko Labe Garairako eta Punta Begoña Galerietarako bisitak lotzen ditu

Azarotik aurrera, Nerbioi Itsasadarra euskal ondarearen bi monumentu garrantzitsuen hari nagusia izango da: Sestaoko Labe Garaia eta Punta Begoña Galeriak.

Itsasadarraren bi aldeak ibilbidearen bidez, bi saio egingo dira dohainik eta antolatutako saio bakoitzaren bidez bi monumentuak egun berean bisitatu ahal izango dira, puntu batetik bestera nabigatuz, Euskadiren hazkunde ekonomikorako funtsezkoa izan zen garaia berpizteko.

Ekimenean Sestao Berrik eta Punta Begoña Fundazioak hartzen dute parte eta TAC! Hiri Arkitekturaren Jaialdiaren barruan dago.

Bi bisiten egunak:

- Azaroak 14, larunbata (Getxo--Sestaorako noranzkoan).

Jardunaldia 10:00etan hasiko da Galerietara bisita gidatu batez. 11:30ean, itsasontzi ibilbidea egingo da Kirol Portutik Benediktako dartsenara, eta 12:15ean, Labe Garaiko ibilbidea egingo da. 14:00etan amaituko da proiektu pilotuaren barruko lehen bisitari--taldeari arreta eskainiz.

- Abenduak 12, larunbata (Sestao – Getxorako noranzkoan).

Bidaia alderantzizko noranzkoan egingo da, iraupen bera eta elkarren segidako bisiten formatu egituratu bera mantenduz. 10:00etan Labe Garaian hasiko da, eta 14:00etan Punta Begoñan amaituko da.

Izen-emateak egiteko eta jardueraren inguruko informazioa jasotzeko: www.puntabegonagetxo.eus.

Enpresei deialdia “Getxon gozatzeko planak” programarako

Getxoko enpresek abenduaren 4a arteko epea dute beraien esperientzien eta jarduera turistikoen eskaintza txertatzeko *Getxon gozatzeko Planak 2027* egitasmoan, hala nahi izanez gero.

Kontsumitzaileei eta merkaturatze-agentziei Getxon egin daitezkeen turismo-esperientzien eskaintza osoa hurbiltzea da helburua. Alde batetik, baliabide ezagunenen aurrean beste plan batzuk proposatzea, “*xarmadunak*”, Getxo dagoeneko ezagutzen duten bisitari eta txangozaleak anima daitezen udalerrira berriro etortzera; eta bestetik, udalerrira etorritako turista eta bisitarien egonaldia luzatzea, horren guztiaren helburua izanik bertako enpresetan eta Getxo osoan eragin ekonomiko handiagoa lortzea.

Ekimenean parte har dezake bertakoa den edota Getxon jarduera nagusia duen edozein enpresak eta bisitariei eta turistei zerbitzuak edota esperientziak eskaini ahal dizkietenak, haiek helmugan eduki ohi dituzten beharren ildotik. Atxikimendua doakoa da enpresentzat. Interesa duten enpresek informazio gehiago eska dezakete mezu bat bidaliz hona: getxoplanak@getxo.eus





245 pertsona Bizilagunak ekimenaren bazkarietan

245 lagunek parte hartu zuten hilaren 9an, igandean, Getxon egindako bertoko eta jatorri atzerriko familien arteko bazkarietan, *Bizilagunak-Aldameneko familia* urteroko ekimenaren barruan, Udalak antolatuta, EGIZU elkartearen eta Getxoko Etorkinak Federazio Plataformaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, besteak beste. Aurten bazkariak bederatzi txokotan izan ziren, hainbat tokitako pertsonarekin, horien artean, Euskal Herria, Argentina, Aljeria, Bolivia, Txile, Kuba, Euskal Herria, Ekuador, Estatu Batuak, Filipinak, Guatemala, Honduras, Ingalaterra, Kenya eta Maroko. Elikagaiak dastatu ondoren, parte hartzaileek bizipenak, ohiturak eta ikuspegiak partekatzeko aukera eduki zuten.

Eskubeltzen 35. urteurrena

Algortako Eskubeltz eskaut taldeak bere 35. urteurrena ospatuko du. Hori dela eta, larunbat honetan, hilak 14, Fadurako TikiToki Zentroan ekitaldi bat egingo du: bi mahai-inguru, manifestu baten sinadura eta taldeak urteurrenerako espresuki konposatutako abesti musikal baten aurkezpena izango dira. Abestian eskaut gazteek parte hartuko dute.

Ekitaldiak, udal Gazteria Zerbitzuaren laguntza du, eta udalerriko adituak eta gizarte- eta hezkuntza-erakundeak bilduko ditu, hezkuntza-aisialdiak gizartea eraldatzen eta komunitate-loturak sendotzen nola laguntzen duen aztertzeko. Ateak 17:30ean irekiko dira eta sarrera doakoa izango da aretoa bete arte.

Eskubeltz taldea 1991garren urtean sortu zen eta 8 eta 18 urte bitarteko pertsonak aisialdian heztea du helburu. Asteburuetan jarduerak, mendirako irteerak, boluntariotza eta abar egiten ditu, adinaren arabera.